

IRU OLERKARIAK

(Arabitar ipuiña)

Bein ba-zan arabitar bertsogille bat, asmotsu ta goiargiz betea, baiña base-rritarra jaiotzez; egun batean, bertso mordoa atera ta erregeari eroan eutsozan, eta onek, aren buru-argitasuna ta etorri ugaria ikusirik, arrera itzalgarria egin eutson. Beste olerkariak, baiña, begitan artu eben erregea eurekaz baiño esku-zabalago aregaz izan zalako; ta errege jaunagana urreraturik, au esan eutsoen: «Errege gure jaun, zergaitik ainbeste dedu ta ohore oneri, etorki apalekoa bait-dozu?» Erregeak erantzun eutsen: «Zuek iraindu uste izan dozuen au, geiago goratu dozue». Eta jauregitarren ezin ikusiak eratsitako olerkari apalak gainerratu eban: «Larrosari ez datorkio irainik, arantzartean jaioa izan arren». Erregeak esku-erakutsi andiekaz goraturik, agur egin eutson.

Beste bein bertsogille andiki odolekoa bai, baiña txarto azitako batek eroan eutsozan erregeari bere bertsoak. Oso txarrak bait-ziran, erregeak irakurri ebazanean, atzerazo ta jaurti zitu, eta ez eutsan saririk emon. Orduan andikiak erregeari: «Bertsoakaitik ez ba'dabe be, neure jatorriagaitik beintzat, zeozegaz saritu bear nindukezu». Erregeak bota eutson: «Nor dok aita?» Arek esan eutson. Ta erregeak: «Aren azia iregan endekatu dok». Eta olerkariak: «Sarri, oi errege!, garitik

erne oi da urun-lorea». Barriz bakal-dunak: «Eure aita baiño ixikiago azala erakutsiko dok». Eta orrela biatdu eban andiki a.

Irugarren bertsogille bat be erregeagana urreratu zan: aitagandik baserritar, baiña amagandik andiki. Ez erarik ez ganorarik ez eukana zan, eta bat be antze ta patxada barik egindako bertso batzuk aurkeztu eutsozan erregeari. Bere amak ba-eban neba bat doatsua, ta idazten ebanari gazi-ozpiña ezarten ekiana. Erregeak ez eutson ezelan bere lanagaitik olango aintzagarri zanik egin. Alan be, noren semea zan itandu eutson. Olerkariak bere aitaita artu eban aitzaki, ta erregeak sarkutzak austerañoko barre-argara bota eban. Aren senidartekoak itandu eutsoen: «Zer dala-ta onen barre-argara nasaja?» Eta erregeak eralgi eban: «Bein, ipuin-liburu baten irakurri neban alegi bat, eta orain bera daukat hizi-bizi begi aurrean». Areik galdetu eutsoen: «Zein alegi da ori?» Eta erregeak: «Mando jaiobari batek, larrean, azeri bategaz topoz egin eban, eta onek, zur ta arri, itandu eutson: «Nor zara zu?» Jainkoaren izaki bat zala erantzun eutson mandoak. Azeriak zirika: «Aita edo amarik ba al dozu?» Mandoak dirautso: «Zaldi zangarra dot aitaita».

Mandoak bere aita astoa, abere motz

alperre zalako, ezagutu nai izan ez eban lez, era berean au be lotsa da bere aita, nagi xea, autortzeko. Erregeak orduan, olerkariagana zuzendurik, esan eutson: «Esan egidak, mesedez, nor dokan aita». Eta arek esan eutson.

Erregeak ikusi eban, ba, baldar ta txarto azia zala, ta bere morroia esan eutsen: «Emon daiogun zerbait oni, bere etorkia bait-dausku iragarri, ezer aldatu bage».

Bizkargi

Barriketan

1900'KO NOBEL-SARIAK

Aurten, Fisika'ko Nobel-saria, irakasle-amerikatar batek irabazi dau: Donald Glaser deritxo. Ohio'ko Cleveland urian jaio zan, 1926'garren urtean. Glaser dogu Nobel-saria irabazitako jakintsurik gazteena. Beragaz, Nobel-saria eskuratu daben USA-amerikatarrek amazpi dira. Kimika-saria, beste amerikatar batek irabazi dau: Villard Libby irakasleak, Kalifornia'ko Ukastetako, 1908'garren urtean jaioa. Aurten Nobel-sariak onexek izan dira:

—Medizina'ko: Burnet eta Medawar irakasleak, batu ingelatarra, bestea australitarra

—Fisika'ko: Glaser, USA-amerikatarra.

—Kimika'ko: Libby, USA-amerikatarra.

—Elerri'ko: Alexis Saint-Leger (Saint-John), prantzetar olerkaria.

—Bake-saria... au bai negargarria! ezina izar da iñori emotea!

(T. I.)

ARRIGARRIA

Barri au irakurriko daben guztiak, arri-tu egingo dirala uste dot:

«Britannia (British Columbia), 2'an: Meagizonen argiontzia argituta, eta artazi bategaz, ezkerreko besoa ebagi dautso osagille batek zoritxarreko meagizon bateri.

Zortzi orduz zabor-azpian egon zan meatzari gizajoa, ta besoa arrien artean lotuta eukan. Ez egoan, beraz, beste biderik andik askutzeko».

Egia izan leiteke, baiña oso gatxa dala deritxot, artazi utsez beso bat ebagitea.

Urrun dagozan tokietan jazoten dira beti orrelako jazoera arrigarriak!

(M. J.)

EUSKAL-BASERRIETAKO-JAIK

I. orain Ugarrinean, Martin Deunaren erria ospatzen da. Euskal-Erri'ko toki askotan jai izaten da egun orretan. Baiña ezta elizkizun ederrez bakarrik ospatzen, baita dantzari eta jone-danoan be. Orretan, iru edo lau egunez aurretik, ia baturu guztietan txarri edo txalaren bat ilten dago. Ta egun berean ez oze, ondorengo egunetan be, bazkari-apari oparoitsuak gertatzen dabaz elizehoantreak. Urrelako egunetan pozik joan leiteke gure baserrietara!

(A. A.)

EUSKERAREN GORABERAK

Euskal-izuleak ugartu egin dira azken urteetan. Lekudetxetan, batez be, guzteuldra ederrak sortu dira euskeraz idazten gogor diarduenaic. Baiña ez erri xumearentzat edo ez-ikasientzat bakarrik, ez: Baita jakitunentzat be. Teoloji, Pilosopi, Gizarte-arazo, Ederti-lan eta jokerak, Izarritia, Erriarteko artuemonak, Edestia, Erlijio-ga'ak, Sikoloji eta abar: Amaikatxo lan eder emoten daskuez gazteok euren aldizkarietan. «YAKIN» deritxona izan zan orre-